

2. LANABESA. IKASLEEN JARRERAK HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK (I)

Haur Hezkuntzako ikasleen adina dela-eta, jarduera hau euskarri bisualarekin laguntzea proposatzen da, eta saio kolektiboan egitea, talde osoarekin.

Eguneroko jardueren edo zereginen irudiak emango dira, eta ikasleak pentsatu beharko du jarduera horiek gizonen, emakumeen edo biek egin ote ditzaketen.

Irakasleak materiala eta jarduerak aurkeztuko dizkie, eta galdetuko die nork egiten dituen jarduera horiek (gizonen, emakumeen edo biek), eta erantzunak arrazoitzera animatuko ditugu kasu guztietan.

Ikasleek erantzunak ematen dituztenean komeniko litzateke ohartzea neska edo mutikoa den, konturatzeko noraino dauden barneratuta genero-estereotipoak.

Jarduera- edo zeregin-zerrenda horretatik, zure ustez, zein egin ditzakete gizonak eta zein emakumeek?






<p>JARDUERAK</p>			
<p>LISATZEA</p>			
<p>JANARIA PRESTATZEA</p>			
<p>AUTOAK KONPONTZEA</p>			
<p>ERRATZA PASATZEA</p>			

SENTSIBILIZAZIOA. HAUR HEZKUNTZAKO IKASLEAK

3. LANABESA. IKASLEEN JARRERAK HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK (II)

Etxeko lan hauetako zeinetan lagundu dezakete neskek eta zeinetan mutilek? Adierazi mutilek, neskek edo biet lagundu ote dezaketen:



<p style="text-align: center;">JARDUERAK</p>			
<p style="text-align: center;">MAHAI-TRESNAK GORDETZEA</p>			
<p style="text-align: center;">ONTZIAK GARBITZEN LAGUNTZEA</p>			
<p style="text-align: center;">MAHAIA JARTZEA</p>			
<p style="text-align: center;">EROSKETAK EGITEN LAGUNTZEA</p>			